

Bergaran, 2025eko irailaren 25ean

Ikastolen Ikasturte Hasiera Ekitaldia: “Bagatoz, indar berriz”

**IKASTOLAK izango da ikastolen
mugimendua izendatzeko erabiliko dugun
hitza**

Ikastolak indar berriz gatoz, betiko balioekin eta proiektu berrieekin, eta aldi berri baterako irudi berri batekin. Halaxe azaldu dute, gaur, Bergaran, Ikastolen Ikasturte Hasiera Ekitaldian, ikastoletako ordezkariak. Bergarako Seminarixoa mukuru beterik zegoela ospatu dugu ekitaldia ikastolok, eta bertan hitza hartu dute Ikastolen lehendakari Nekane Artolak, lehendakariorde Erik Etxartek, zuzendari nagusi Agurne Barrusok eta Ikastolen Lagunak elkarteko kide Katty Iglesiasek.

lazko ekainean ospatutako Zazpigarren Batzarrean hartutako erabakiak martxan jartzeko ikasturtea dugu aurtengoa. Euskal gizarteak dituen erronkei eta hezkuntzari egiten dizkion eskakizunei erantzuteko unea dugu. Ikastolen Ikasturte Hasierako Ekitaldian azaldu ditugu erronka horiek: pertsonen aniztasuna eta ekitatea, kulturen arteko harremanak, euskara eta euskal kulturaren transmisioa, denon lurraren geroa, lurraldeen arteko lotura eta sareak, garapen pertsonala eta elkarren zaintza, lan mundua eta gizarte onura...

Aspaldian, hizkuntza, hezkuntza zein herrigintzari aipamena egiten dioten diagnostikoek errealitatea bere gordintasunean azaldu digutela, esan da ekitaldian. Geldialdi batean gaudela dirudi baina Ikastolok ez dugu etsipenean erori nahi, indarraldira jo nahi dugu. “Gure aurrekoek gurea baino askoz garai zailagoan sortu zituzten ikastolak. Orain ere, azken urteotan sortu diren ikastoletako batzuk ingururik zailenetan sortu dira. Geure lana da bagatoz esatea. Itzalei argia eskaintzea, garai zailei ekimena, erronkei ilusioa. Eta haurrei irribarrea. Bagatoz lanera, heztera, jolastera, eta garena izateaz gozatzeraz”.

Erronka berriak aipatu dira gaurko ekitaldian, eta haiei erantzuteko gogoetak eta egitasmoak lantzen ari gara Ikastolak. Horietako batzuk aipatu dituzte gaurko ekitaldian: inklusiotik ekitatera jauzi egiteko egitasmoa; euskararen erabilera indartzekoak; digitalizazioari neurria hartzekoa; pertsona, gizakia, hezkuntzaren erdian jartzen duen eredu batera jauzi egitekoa. Eta aipamen berezia egin nahi izan zaio ikasturte honetan DBHn eta datorren ikasturtean Lehen Hezkuntzan ezarriko den Onki programari, ikuspegi holistiko batetik landu duguna eta lantzen ari garena, zeinak pertsona bakoitza bere osotasunean hartuz, Ikastolen komunitatearen ongizatea zainduko duen, bereziki ikasleena.



Zer egin nahi dugun eta egitera goazen bezala, nola egin nahi dugun ere azaldu dute ikastolen ordezkariak: “Garai honek jarri dizkigun erronkei ere halaxe erantzungo diegu, komunitate gisa, auto-eraketaren bidez erabakitzen eta antolatzen ditugun bideak urratuz”, baina ikastolokin batera bide horiek jorratu nahi dituzten hezkuntza eta gizarte eragile guztiekin batera.

Marka berri bat, aldi berri baterako

Ikastolok marka berria estreinatu dugu. Erronka berriak ditugu euskal gizartean eta ikastolek ilusioz heltzen diegu erronka berriei, ikuspegi berrietatik jardunez, egitasmo berriak sortuz, erantzun berriak eskainiz, eta orain marka berriarekin. **IKASTOLAK** da ikastolen mugimendua izendatzeko erabiliko dugun hitza, Ikastolen Elkartea ordezkatu duena. **IKASTOLAK** hitzak berak deskribatzen baitu ongien gure komunitatea, **115 ikastolak, 46.000 familiak, 55.500 ikaslek, 3.700 langilek eta milaka ikastola lagun eta ikastolazalek** osaturikoa, “eta batez ere, zenbakiak baino askoz haratago iritsi nahi duen proiektu herritar bat”, ekitaldian azpimarratu denez:

“Biharko euskal herritarrek gaurtik hezten dituen hezkuntza sare eraldatzailea osatzen dugu”.

Aldi berrirako aukeratu dugun izenak eta logotipoak gure izaera erakusten du: **Izar itxurako ikurrak** sarea irudikatzen du, horixe baikara: ikastola bakoitzean komunitate bat, saretuta; eta Euskal Herriko ikastola guztien artean beste komunitate bat, hura ere saretuta. **IKASTOLAK**. Hitz hasierako **1 horrekin**, bat garela esan nahi dugu. Zazpiak bat. Edo 115ak bat. Historikoki erakutsi dugun ausardia ere jasotzen du i hizkiaren ordeztu, zenbaki bat sartzeak. Eraldatzaileak gara, geure burua eraldatzeko prest gaudelako. Amaierako **-k** horrekin plurala egiten dugu, gure arteko aniztasuna aldarrikatuz, eta aldi berean kolektibo bat garela erakutsiz. Askok gara, ezberdinak gara. Denok gara ikastola.

Palestinari erreferentzia

Israelgo Estatua Gazan palestinarren aurka burutzen ari den genozidioaren aipamena ere izan du ekitaldiak. Eta bereziki hil dituzten haur palestinarrak izan dituzte gogoan: “Haurrak dira gizarte bateko talderik zaugarriena eta herri batek daukan altxorrik handiena. Haurrak etorkizuna dira, bai Euskal Herrian... eta baita Palestinan ere. Haiek ere merezi dute, bizitzea, ikastea, jolastea, zoriontsuak izatea eta etorkizun bat eraikitzea. Palestinako haurrak gureak ere badira. Ikastolak bagatoz, munduko haur guztiak errespetuz eta maitasunez haziko dituen mundu bat eraikitza!”

Ikastoletako ikasle ohien ikuskizunak

Imanol Epelde arduratu da Bergarako Seminarixoa ospatutako ekitaldiaren aurkezpen lanak egiteaz, eta ikastoletako bi ikasle ohien ikuskizunez goatzeko aukera ere izan dute aretoa mukuru bete duten ikastolazale eta gonbidatuak. Angeluko **Sunita Camblong** abeslariak eta Lesakako **Martxel Rodriguez** dantzariak hartu dute parte ikuskizun horietan.



En Bergara, a 25 de septiembre de 2025

Acto de Inicio de Curso de las Ikastolas: "Venimos con fuerza renovada"

IKASTOLAK será la palabra que utilizaremos para designar al movimiento de las ikastolas

Las ikastolas venimos con fuerza renovada, con los valores de siempre y nuevos proyectos, y con una nueva imagen para un nuevo periodo. Así lo han explicado hoy en Bergara, en el acto de Comienzo de Curso de las Ikastolas, los representantes de las ikastolas. Los cursillistas hemos celebrado el acto con el Seminario de Bergara lleno y han tomado la palabra la presidenta de las ikastolas, Nekane Artola, el vicepresidente, Erik Etxart, la directora general, Agurne Barruso y Katty Iglesias, miembro de la asociación Ikastolen Lagunak.

Este es un curso para poner en marcha los acuerdos adoptados en la Séptima Asamblea celebrada en junio del año pasado. Es el momento de responder a los retos y demandas educativas de la sociedad vasca. En el acto de Principio de Curso de las Ikastolas hemos expuesto estos retos: la diversidad y equidad de las personas, las relaciones interculturales, el euskera y la transmisión de la cultura vasca, el futuro de nuestra tierra común, las conexiones y redes territoriales, el desarrollo personal y el cuidado mutuo, el mundo laboral y el beneficio social...

Hace tiempo que los diagnósticos que hacen referencia a la lengua, la educación y el desarrollo de país nos han expuesto la realidad en su crudeza, se ha dicho en el acto. Parece que estamos en un impasse, pero las Ikastolas no queremos caer en la desesperanza, queremos dar un impulso. "Nuestros antecesores crearon las ikastolas en un tiempo mucho más difícil que el nuestro. Algunas de las ikastolas que han surgido en los últimos años se han creado en los entornos más difíciles. Nuestro trabajo es decir que ya



vamos; es ofrecer luz a las sombras, iniciativas a los tiempos difíciles, ilusión a los retos. Y sonrisa a los niños y niñas. Vamos a trabajar, a educar, a jugar y a disfrutar de lo que somos".

También se han señalado los proyectos que hemos puesto en marcha para responder a los retos: un proyecto para dar el salto de la inclusión a la equidad; de refuerzo del uso del euskera; de medida a la digitalización; un salto hacia un modelo que ponga a la persona, al ser humano, en el centro de la educación. Y se ha querido hacer una mención especial al programa Onki que este curso ya se ha implementado en la ESO y el próximo curso en Primaria, que hemos trabajado desde una perspectiva holística y que, considerando a cada persona en su conjunto, velará por el bienestar de la comunidad de las Ikastolas, especialmente del alumnado.

Al igual de señalar qué es lo que queremos y vamos a hacer, los representantes de las ikastolas han explicado, también, cómo lo queremos hacer: "Así responderemos también a los retos que nos plantea este tiempo, como comunidad, abriendo caminos que decidimos y organizamos a través de la auto-constitución", pero con todos los agentes educativos y sociales que quieran abordar estos caminos con las ikastolas.


Una nueva marca, para una nueva etapa

Las ikastolas estrenamos nueva marca. Tenemos nuevos retos en la sociedad vasca y las ikastolas abordamos los nuevos retos con ilusión, actuando desde nuevas perspectivas, creando nuevos proyectos, ofreciendo nuevas respuestas, y ahora con nueva marca. **IKASTOLAK** es la palabra que utilizaremos para designar el movimiento de las ikastolas, en lugar de Ikastolen Elkartea. Porque la propia palabra **IKASTOLAK** es la que mejor describe a nuestra comunidad, compuesta **por 115 ikastolas, 46.000 familias, 55.500 alumnos, 3.700 trabajadores y miles de ikastolazales y amigos de las ikastolas**, "y sobre todo, un proyecto ciudadano que pretende llegar mucho más allá de los números", tal y como se ha subrayado en el acto.

El nombre y logotipo que hemos elegido para la nueva etapa demuestra nuestra naturaleza: El símbolo en forma de estrella representa la red, que es lo que somos: una comunidad en cada ikastola, una red; y formamos otra comunidad, otra red, entre todas las ikastolas de Euskal Herria. **IKASTOLAK**. Queremos decir que somos uno mediante ese **1** inicial. Zazpiak bat. La unión de las 115 ikastolas. También recoge la valentía que históricamente hemos demostrado al sustituir la letra **i** por un número. Somos transformadores porque estamos dispuestos a transformarnos a nosotros mismos. Con esa **-K** final mostramos la pluralidad, reivindicando la diversidad entre nosotros, demostrando a la vez que somos un colectivo. Somos muchos, somos diferentes. Todos somos ikastola.

Referencia a Palestina

El acto también ha tenido una mención al genocidio que el Estado de Israel está llevando a cabo en Gaza contra los palestinos. Y han tenido en mente especialmente a los niños



palestinos que han sido asesinados: "Los niños son el grupo más vulnerable de una sociedad y el mayor tesoro que tiene un pueblo. Los niños son el futuro, tanto en Euskal Herria... como en Palestina. Ellos también merecen vivir, aprender, jugar, ser felices y construir un futuro. Los niños palestinos también son nuestros niños. ¡Las ikastolas venimos a construir un mundo que criará a todos los niños con respeto y cariño! "

Música y danza de ex alumnos de ikastolas

El acto celebrado en el Seminario de Bergara ha sido presentado por **Imanol Epelde**, y los miembros de las ikastolas y los invitados han podido disfrutar también de las canciones y bailes de dos antiguos alumnos de las ikastolas: La cantante **Sunita Camblong** de Angelu y el bailarín **Martxel Rodríguez** de Lesaka.

